



**Idazkaritza-Kontuhartzaitza**

**UDALA ERATZEKO AKTA**  
**ACTA DE CONSTITUCION DEL AYUNTAMIENTO**

**ZINEGOTZI HAUTETSIEIEN BILERA**

- Euskal Herria Bildu (EH BILDU)

Edorta Zubizarreta Alegria  
Alaitz Orueta Arrese  
Edorta Barandiaran García  
Xabier Uriarte Iñurrategi  
Irati Iglesias Pozo  
Mikel Aingeru Luengo Gabarain  
Dorleta Sologaistoa Aguiriano

- Eusko Alderdi Jeltzalea -Partido Nacionalista Vasco (E.A.J.-P.N.V.)

Maite Uribe Beristain  
Antonio Regaño Sajeras  
María Purificación Regidor Varela  
Josu Miren Ezkurdia Santamaría

Idazkaria.

Edurne Iturbe Lascurain

<https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/34/AAAAD6YN.DnjU>

**2023/06/17**  
**Ez Ohiko Udalbatza**  
Pleno Extraordinaria



## **Idazkaritza-Kontuhartzaitza**

Eskoriatzako Udaletxeko Osoko Bilkuren Aretoan, 2023ko ekainaren 17ko eguerdiko hamabietan, lehen deialdian eta Udala eratzeko bilkura egiteko, hasieran adierazitako zinegotzi hautetsiak bildu dira, 2023ko maiatzaren 28ko udal hauteskundeetan aldarrikatuak izan direnak.

Ekitaldian izan da, eta bertan gertatutakoa egiaztatzen du, Edurne Iturbe Lascurain idazkariak, Udal idazkaria ere denak.

Idazkariak jakinarazi du bilkura honen xedea Udala eratzea dela, Hauteskundeen Araubide Orokorri buruzko Lege Organikoaren 195.1 artikuluan eta Toki Korporazioen Antolaketa eta Funtzionamenduaren Erregelamenduaren 37.1 artikuluan agindutakoa betez, gai-zerrenda honen arabera:

- 1.- Adin mahaia eratzea.
- 2.- Hautetsien kredentzialak eta nortasuna egiaztatzea.
- 3.- Zinegotziek kargua hartzea.
- 4.- Udalbatza eratu izanaren adierazpena.
- 5.- Alkatea aukeratzea.
- 6.- Alkateak kargua hartzea.

### **ADIN MAHAIA ERATZEA.**

Idazkariak bilkurari hasiera emanda, Hauteskunde Araubide Orokorri buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 195.2 artikuluan aurreikusitako Adineko Mahaia osatu da honako kideekin: Maite Uribe Beristain zinegotzi hautetsia eta mahaiburua (zaharrena delako) eta Irati Iglesias Pozo zinegotzi hautetsia (gazteena delako). Edurne Iturbe Lascurain izango da mahaiko idazkaria.

### **HAUTETSIEN KREDENTZIALAK ETA NORTASUNA EGIAZTATZEA.**

Jarraian, mahaiko idazkariak zinegotzi hautetsien nortasuna egiaztatzeko alde zuretik eman zaizkion egiaztigiri guztiak egiaztatu ditu, mahaiko kideek ikusi dituztenak bat datozela bere garaian Eskualdeko Hauteskunde Batzordeak Udal honi igorritako ziurtagiriek.

Aurreko egiaztapena egin ondoren, idazkariak jakinarazi du hautatutako zinegotzi guztiek bete dutela apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 75.7 artikuluan eskatzen diren aitortpenak, bilkura hau egin aurretik, aurkezteko baldintza.

### **ZINEGOTZIEK KARGUA HARTZEA.**

Jarraian, eta aldarrikapen-hurrenkeraren arabera deituak izanik, bertaratutako zinegotzi hautetsiek Hauteskunde Araubide Orokorriaren Lege Organikoaren 108.8 artikuluan ezarritako zina edo promesa egiten dute, apirilaren 5eko 707/1979 Errege Dekretuan ezarritako formula honen arabera:

**2023/06/17**  
**Ez Ohiko Udalbatza**  
Pleno Extraordinaria



## **Idazkaritza-Kontuhartzaitza**

*“Zin dagizu edota agintzen duzu, zure kontzientzia eta ohoreagatik, zintzo beteko dituzula zinegotzi karguak berekin dituen betebeharrak, Erregearekin leial izanez eta Konstituzioa Estatuaren funtsezko arau gisa zainduz eta zainaraziz?”.*

Ondorengo zinegotziak hitza eman dute: Edorta Zubizarreta Alegría, Alaitz Orueta Arresek, Antonio Regaño Sajersek eta Maria Purificación Regidor Varelak.

Ondorengo zinegotziak adierazi dute behartuta edo legeak aginduta hitz ematen dutela: Edorta Barandiarán Garciak, Xabier Uriarte Iñurrategik, Irati Iglesias Pozok, Mikel Aingeru Luengo Gabarainek eta Dorleta Sologaistoa Aguirianok.

### **UDALBATZARRA ERATZEA.**

Zinegotziak kargua hartu ondoren, eta kontuan hartuta Bilkura honetara zinegotzi hautetsi guztiak aurkeztu direla, eta, beraz, legezko gehiengo osoa, Adineko Mahaiburuak bertaratutako zinegotzi hautetsiak karguaz jabetu ditu eta Udalbatza formalki eratutzat jo du.

### **ALKATEA AUKERATZEA**

Idazkariak bildutakoei azaldu die, Hauteskundearen Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196. artikulua xedatzen duen bezala, Udalbatzara eratzeko bilkuran bertan alkatea aukeratu behar dela agindu horretan ezarritako prozeduraren arabera. Hona hemen prozedura:

- zerrendetako buru diren zinegotzi guztiak dira hautagaiak.
- bertaratutako zinegotzi guztiak dira hautesle.
- botoen legezko gehiengo osoa lortzen duen hautagaia hautatuko da, hau da, gutxienez 6 boto behar dira.
- Bozketa honetan hautagairen batek ere ez badu gehiengo osoa lortzen, automatikoki alkate izendatuko da boto gehien lortu dituen zerrendaburu den zinegotzi hautatua.

EAJ/PNVk jakinarazi du bere alderdiak ez duela Alkatetzarako hautagaitzarik aurkezten, eta, beraz, Edorta Zubizarreta Alegría zinegotzia da alkategai bakarra.

Ondoren, bertaratutako zinegotziak isilpeko boto-paper bidez bozkatu dute, eta botoak zenbatu ondoren, honako emaitza izan da:

**2023/06/17**  
**Ez Ohiko Udalbatza**  
Pleno Extraordinaria



### **Idazkaritza-Kontuhartzaitza**

| Hautagaia                  | Lortutako botoak |
|----------------------------|------------------|
| Edorta Zubizarreta Alegria | 7                |
| Zuriak                     | 4                |

Bozketaren emaitza ikusita, EH BILDUko hautagaiak Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko ekainaren 19ko 5/1985 Lege Organikoaren 196.b) artikuluan eskatzen den gehiengo osoa lortu duenez, eta 196. artikulua c) letran aurreikusitakoa aplikatuz, Eskoriatzako alkate izendatua izan da Edorta Zubizarreta Alegria.

### **ALKATEAK KARGUA HARTZEA**

Jarraian, Edorta Zubizarreta Alegria alkate hautetsiak adierazi du Eskoriatzako Udaleko alkate kargua onartzen duela, eta Hauteskunde Araubide Orokorrari buruzko Lege Organikoaren 108.8 artikuluan ezarritako hitzematea egin ondoren apirilaren 5eko 707/1979 Errege Dekretuan ezarritako formularen arabera, alkate kargua hartu du jabetza hori ematen dion udalbatzarraren osoko bilkuraren aurrean, indarrean dauden xedapenek esleitzen dizkieten eskumen, eskubide eta betebeharrak guztiekin.

Une horretan, irteten den alkate udalburuaren eskutik zumitezko uztaia jaso zuen, udalaren agintearen eskualdatzea sinbolizatzen duena.

Ondoren, Alkateak bertaratutakoei hitz egin die:

*Eguerdi on,*

*Egun berezixa da gaur niretzat, esta hasteko, gogoan euki nahi ditzut nire ibilbidean lagun izan ditzudanak:*

- *Lehenengo aldiz nirekin batera zinegotzi izan zien Aitor Armendariz eta Korta.*
- *Gero, Alkatetzan nirekin egon zien David, Josu, Dorleta eta Iñaki.*
- *Baitxa Pedro, Beñat eta euren talde osoa*
- *Eta bereziki, azken 8 urtietan oposiziñuen egon dienak. Oso urte gogorak izan die, kostu pertsonal eta familiar haundixa suposatu dau, eta batek osasuna be bidien itxi dau. Horregatik, talde osuan izenien, eskerrik asko bihotzez.*

*Eskerrik asko baitxa gure proiektua babestu dozuen herritxak guztixei. BAdakigu, zuetako askok, ideología politikoaren gainera pertsonen eman dotzezuela botua. Eta guk be badakigu botuen atzian pertsonak dauzela. Gure alde bozkatu dozuen pertsonak eta baitxa bozkatu ez dozuenok be. Eta danondako lan eingou, guretzako Eskoriatza danok garelako.*

*Quiero dar las gracias a quienes habéis apoyado nuestro proyecto. Sabemos que a parte de ideología, también nos habéis votado como personas.. Somos conscientes de ello y lo apreciamos enormemente.*

*Y ahora queremos trabajar por todas, por las que nos habéis votado y por las que no. Porque todas somos Eskoriatza.*

**2023/06/17**  
**Ez Ohiko Udalbatza**  
Pleno Extraordinaria



### **Idazkaritza-Kontuhartzailletza**

*Eta hemendik Aurrera, lanera! Gauza batzuk asmatuko dugu, zihur beste gauza batzuk ez ditugula ondo egingo,. Baina egon zihur zintzotasunez eta gure borondate onenaz lan egingo dugula.*

*Jakin gure atea beti egongo dala zablik, danontzat.*

*Amaitzeko agur bat eta besarkada bat familiari, nireari eta taldeko guztien familiari. Hemen sartzeko erabakia guria izan da, baina zuek sufritu beharko dituzue ondorioak . Pazientzia eta babesa eskatzen dotzuegu, denok merezi dugun Eskoriatza bat lortzeko.*

*Gora herria!! Gora Eskoriatza!!*

**Beste inork hitzik hartu ez duenez, gai zerrendako gai guztiak aztertu ondoren, Edorta Zubizarreta Alegria Alkate jaunak amaitutzat jo du bilkura 12:10ean. Eta nik, idazkariak, hori guztiori egiaztatzen dut.**



## **Idazkaritza-Kontuhartzailletza**

En el Salón de Plenos de la Casa Consistorial del Ayuntamiento de Eskoriatza, siendo las doce horas del día 17 de junio de 2023, en primera convocatoria y a los efectos de celebrar sesión constitutiva del Ayuntamiento, se reúnen los concejales electos que en el encabezamiento se expresan, y que han resultado proclamados en las Elecciones Municipales celebradas el día 28 de mayo de 2023.

Asiste y da fé del acto la Secretaria Edurne Iturbe Lascurain, que lo es también del Ayuntamiento

La Secretaria da cuenta de que el objeto de esta sesión es la constitución del Ayuntamiento, en cumplimiento de lo ordenado en el artículo 195.1 de la Ley Orgánica del Régimen Electoral General y artículo 37.1 del Reglamento de Organización y Funcionamiento de las Corporaciones Locales, conforme al siguiente orden del día:

- 1.- Constitución de la Mesa de Edad.
- 2.- Comprobación de credenciales y personalidad de los/as electos/as.
- 3.- Toma de posesión de los/as concejales/as.
- 4.- Declaración de la constitución de la corporación.
- 5.- Elección del/la Alcalde/sa
- 6.- Toma de posesión del/la Alcalde/sa

### **CONSTITUCION DE LA MESA DE EDAD**

Abierta la sesión por la Secretaria, se procede a formar la Mesa de Edad prevista en el artículo 195.2 de la Ley Orgánica 5/1985 de 19 de junio del Régimen Electoral General, que queda integrada por la concejala electa Maite Uribe Beristain, por ser la de mayor edad, que la preside, y por la concejala electa Irati Iglesias Pozo, por ser la de menor edad; actuando de Secretaria de la misma la que lo es de la Corporación, Edurne Iturbe Lascurain

### **COMPROBACION DE LAS CREDENCIALES Y PERSONALIDAD DE LOS/AS ELECTOS/AS**

A continuación, la Secretaria de la Mesa comprueba todas y cada una de las credenciales, que previamente le han sido entregadas, acreditativas de la personalidad de los Concejales electos y que, comprobadas por los miembros de la Mesa con las certificaciones que en su día remitió a este Ayuntamiento la Junta Electoral de Zona, resultan conformes.

Realizada la comprobación anterior, por la Secretaria se informa que la totalidad de los concejales electos han dado cumplimiento al requisito de presentación, con carácter previo a esta sesión, de las declaraciones requeridas en el artículo 75.7 de la ley 7/1985, de 2 de abril

**2023/06/17**  
**Ez Ohiko Udalbatza**  
Pleno Extraordinaria



## **Idazkaritza-Kontuhartzaitza**

### **TOMA DE POSESION DE LOS/AS CONCEJALES/AS**

A continuación, y siendo llamados por el orden de proclamación, los concejales electos asistentes prestan el juramento o la promesa establecido en el artículo 108.8 de la Ley Orgánica del régimen Electoral General, conforme a la siguiente fórmula establecida en el Real Decreto 707/1979, de 5 de abril:

*“Juráis o prometéis por vuestra conciencia y honor cumplir fielmente la obligación del cargo de concejal/a con lealtad al Rey, y guardar y hacer guardar la Constitución como norma fundamental del Estado?”*

Los siguientes concejales han manifestado que prometen: Edorta Zubizarreta Alegría, Aitz Orueta Arrese, Antonio Regaño Sajeras y Maria Purificación Regidor Varela.

Los siguientes concejales han manifestado que prometen por obligación o por imperativo legal: Edorta Barandiarán García, Xabier Uriarte Xabier Uriarte Iñurrategi, Irati Iglesias Pozo, Mikel Aingeru Luengo Gabarain, Dorleta Sologaitoa Aguiriano

### **CONSTITUCIÓN DE LA CORPORACIÓN**

Realizada la operación anterior y habida cuenta que concurren a esta Sesión la totalidad de los Concejales electos, y por consiguiente la mayoría absoluta legal, el Presidente de la Mesa de Edad da posesión a los Concejales electos presentes y declara formalmente constituida la Corporación.

### **ELECCIÓN DE ALCALDE**

La Secretaria expone a los reunidos que, tal como dispone el artículo 196 de la Ley Orgánica 5/1985 de 19 de junio del Régimen Electoral General, en la misma sesión de la constitución de la Corporación ha de procederse a la elección de Alcalde, de acuerdo con el procedimiento establecido en dicho precepto y que es como sigue:

- son candidatos todos los concejales que encabecen las correspondientes listas.
- son electores todos los concejales presentes.
- resultará elegido el candidato que obtenga la mayoría absoluta legal de votos, es decir se precisan 6 votos como mínimo.
- si ningún candidato obtiene en esta votación la mayoría absoluta, será proclamado de modo automático Alcalde, el Concejal electo que encabece la lista que haya obtenido mayor número de votos.

Por parte de EAJ/PNV se informa que su partido no presenta candidatura a la Alcaldía, por lo que queda como único candidato a Alcalde el concejal Edorta Zubizarreta Alegría.

**2023/06/17**  
**Ez Ohiko Udalbatza**  
Pleno Extraordinaria



### **Idazkaritza-Kontuhartzaitza**

A continuación, los concejales asistentes proceden a la votación por papeleta secreta y, efectuado el recuento de los votos emitidos, se obtiene el siguiente resultado:

| Candidato                  | Votos obtenidos |
|----------------------------|-----------------|
| Edorta Zubizarreta Alegria | 7               |
| Blancos                    | 4               |

A la vista del resultado de esta votación, habiendo conseguido el candidato de EH BILDU la mayoría absoluta exigida en el artículo 196.b) de la Ley Orgánica 5/1985, de 19 de junio, de Régimen Electoral General, en aplicación de lo previsto en la letra c) del mismo artículo 196, es proclamado Alcalde de Eskoriatza Edorta Zubizarreta Alegria.

### **TOMA DE POSESION DEL ALCALDE**

A continuación, el Alcalde electo Edorta Zubizarreta Alegria manifiesta aceptar el cargo de Alcalde del Ayuntamiento de Eskoriatza, y previa promesa establecida en el artículo 108.8 de la Ley Orgánica del régimen Electoral General, conforme a la fórmula establecida en el Real Decreto 707/1979, de 5 de abril, toma posesión del cargo de Alcalde ante el Ayuntamiento Pleno de la Corporación que le confiere esta posesión, con todas las prerrogativas, derechos y obligaciones que le atribuyen las disposiciones vigentes.

En ese momento, recibe de manos del Alcalde Presidente Saliente el aro de mimbre "ZUMITZA", que simboliza el traspaso del mandato del ayuntamiento.

A continuación el Alcalde se ha dirigido a los presentes, pronunciando las siguientes palabras:

*Eguerdi on,*

*Egun berezixa da gaur niretzat, esta hasteko, gogoan euki nahi ditzut nire ibilbidean lagun izan ditzudanak:*

- *Lehenengo aldiz nirekin batera zinegotzi izan zien Aitor Armendariz eta Korta.*
- *Gero, Alkatezian nirekin egon zien David, Josu, Dorleta eta Iñaki.*
- *Baitxa Pedro, Beñat eta euren talde osoa*
- *Eta bereziki, azken 8 urtietan oposiziñuen egon dienak. Oso urte gogorak izan die, kostu pertsonal eta familiar haundixa suposatu dau, eta batek osasuna be bidien itxi dau. Horregatik, talde osuan izenien, eskerririk asko bihotzez.*

*Eskerririk asko baitxa gure proiektua babestu dozuen herritxak guztixei. BAdakigu, zuetako askok, ideología politikoaren gaintik pertsoneri eman dotzezuela botua. Eta guk be*

**2023/06/17**  
**Ez Ohiko Udalbatza**  
Pleno Extraordinaria





### **Idazkaritza-Kontuhartzailletza**

*badakigu botuen atzien pertsonak dauzela. Gure alde bozkatu dozuen pertsonak eta baitxa bozkatu ez dozuenok be. Eta danondako lan eingou, guretzako Eskoriatza danok garelako. Quiero dar las gracias a quienes habéis apoyado nuestro proyecto. Sabemos que a parte de ideología, también nos habéis votado como personas.. Somos conscientes de ello y lo apreciamos enormemente.*

*Y ahora queremos trabajar por todas, por las que nos habéis votado y por las que no. Porque todas somos Ekoriatza.*

*Eta hemendik Aurrera, lanera! Gauza batzuk asmatuko dugu, zihur beste gauza batzuk ez ditugula ondo egingo,. Baina egon zihur zintzotasunez eta gure borondate onenaz lan egingo dugula.*

*Jakin gure atea beti egongo dala zablik, danontzat.*

*Amaitzeko agur bat eta besarkada bat familiari, nireari eta taldeko guztien familiari. Hemen sartzeko erabakia guria izan da, baina zuek sufritu beharko dituzue ondorioak . Pazientzia eta babesa eskatzen dotzuegu, denok merezi dugun Eskoriatza bat lortzeko.*

*Gora herria!! Gora Eskoriatza!!*

**No habiendo más intervenciones, tras haberse tratado todos los asuntos del Orden del Día, el Alcalde D. Edorta Ramón Zubizarreta Alegria da por finalizado el acto, levantándose la sesión a las 12:10horas. De todo lo cual como Secretaria doy fe.**